TOLOSAKO UDALA

TOLOSAKO UDALA

2019 MAR. 27

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA. 2842

Idazkaritza
kopia: Alkatetza

## MOZIOA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMOA ONARTZEKO ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO

## MOCIÓN: COMPROMISO DE APROBACIÓN Y DESARROLLO DEL PROYECTO DE LA CASA DE LAS MUJERES DE TOLOSALDEA

Emakumeen etxeak eta txokoak Mugimendu Feministaren erreibindikazio historiko izan dira eta dira. Eskaera hori 80ko hamarkadan hasi zen gauzatzen Estatuan, hain zuzen ere, Zaragozako eta Kataluniako ekipamenduak sortu zirenean. Euskal Herrian, berriz, 2003koak dira lehen ekimenak, emakumeen etxeak jarri zirenean Ermuan aurrena eta Arrasaten ondoren, eta 2004an ireki zuten Eibarren.

Las casas y txokos de las mujeres han sido y son reivindicación histórica del movimiento feminista, que comenzó a concretarse en la década de los 80, precisamente con la creación en el Estado de equipamientos en Zaragoza y Cataluña. En Euskal Herria, las primeras iniciativas son del año 2003, con la creación de las primeras casas de mujeres en Ermua y Arrasate y, posteriormente, en Eibar (2004).

2010etik aurrera etorriko ziren besteak: Gipuzkoan, Donostian, Hernanin eta Azpeitian; Bizkaian, Basaurin, Ondarroan eta Durangon; eta Nafarroan, Iruñean. Denek helburu bera dute, baina bakoitzak bere egiturak, kudeatzeko modua eta funtzionamendua ditu, udalerri bakoitzaren errealitate eta beharretara egokituta. Aipatzekoak dira Donostiako eta Ondarroako etxeak, kudeatzen baitituzte Udalaren, erakunde feministen eta emakumeen ehun asoziatiboaren artean.

A partir del año 2010, se crean las siguientes casas: en Gipuzkoa, Donostia, Hernani y Azpeitia; en Bizkaia, Basauri, Ondarroa y Durango; y en Navarra, Pamplona. Todas tienen la misma finalidad pero difieren en el modo de funcionamiento, gestión y estructura, ya que cada una se adecua a su propia realidad. Merecen especial mención las casas de Donostia y Ondarroa, ya que están gestionadas entre el Ayuntamiento, la asociación feminista y el tejido asociativo de las mujeres.

Etxe hauek sortu zituzten politika feministak bultzatzeko eta emakumeen erreferente izateko. Leku hauek elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko dira, eta, era berean, abiapuntu dira emakumeek parte har dezaten udalerriko politikan eta bizitzan. Era askotako gaiak izaten dituzte aztergai eta herriko kolektibo feministen eta emakume-taldeen kezkak eta jakin-mina jasotzen dira, besteak beste, teoria, literatura edo genealogia feminista, indarkeria matxista, autodefentsa feminista, sexualitatea, abortatzeko eskubidea, emakumeen arteko ahizpatasuna; aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da; liburutegi espezializatuak antolatzen dira.

Esas casas fueron creadas a fin de impulsar las políticas feministas y ser un referente de la mujer; se trata de lugares para reunirse, debatir, aprender y empoderar y, al mismo tiempo, son el punto de partida para que las mujeres participen en la vida política y social del municipio. Se recogen las preocupaciones y el deseo de conocimiento de los colectivos feministas y grupos de mujeres y son diversos los temas de debate, tales como teoría, literatura o genealogía feminista, violencia machista, autodefensa feminista, sexualidad, derecho al aborto y sororidad. Cuentan, asimismo, con asesoría jurídica y psicológica, además de bibliotecas especializadas.

### Aurrekariak

Tolosan, Emakumeen Etxearen aldarrikapena (lehendabiziko aldiz) Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2009-

### Antecedentes

En Tolosa se plantea (por primera vez) la reivindicación de la Casa de las Mujeres en la evaluación del II Plan para la Igualdad de

2011) ebaluazioan egin zen, eta 2012an, Tolosako emakumeek espazio propio baten eskaera egin zuten.

Mujeres y Hombres de Tolosa (2009-2011), y en el 2012 las mujeres de Tolosa solicitaron un espacio propio para las mujeres.

Ildo horretatik jarraituz, 2015ean, Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Planean (2015-2020), berriro ere emakumeentzako espazio fisiko bat sortzeko beharra jasotzen da Jabetza eta Partaidetzaren 2. ardatzeko 2.1.1.4. eta 2.1.1.5. helburu espezifikoetako neurrien artean.

En ese sentido, en el 2015, en el Diagnóstico y III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa (2015-2020), se vuelve a recoger la necesidad de crear un espacio propio físico para las mujeres en las medidas definidas en los objetivos específicos 2.1.1.4. y 2.1.1.5. del eje 2 de Intervención denominado Empoderamiento y Participación.

2016an, Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027), *Tolosatzen* programaren barruan, 1. ildo estrategikoan (Tolosa, pertsona ardatz duen herria), ordura arte aldarrikapen izan zena neurri zehatz bihurtu zen, 1.3.3. neurria, hain zuzen ere.

En el 2016, en el Plan Compartido de Tolosa (2017-2027) del programa *Tolosatzen,* en la 1ª línea estratégica (Tolosa, un municipio centrado en la persona) se convierte en medida —en concreto en la medida 1.3.3.— la que hasta ese momento había sido una reivindicación.

Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Posteriormente —seguimos en el 2016—, una representación política y representantes de grupos de mujeres visitaron las casas de mujeres de Basauri y Donostia, para analizar sus experiencias y tener así un punto de arranque para este proyecto.

Urte horretan bertan, era berean, Emakumeen Etxearen lan-talde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Udal Gobernua, oposizioko zinegotziak eta emakumeen ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, elkarlanean proiektua kokatzea eta gutxieneko batzuk definitzea eta adostea. Horren haritik, hainbat gai tratatu dira: etxearen arrazoiak, definizioa, lan-ildoak, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

En ese mismo año se crea el grupo de trabajo político-técnico, compuesto por el Grupo de Gobierno, concejales y concejalas de la oposición y representantes de las mujeres, al que se incorporan las alcaldesas de Berastegi y Asteasu en el 2018. El objetivo de este grupo es, entre otros, situar el proyecto así como definir y consensuar unas bases mínimas. Para ello, se han tratado varios temas como los motivos que justifican la creación de la casa, su definición, las líneas de trabajo, los servicios que va a ofrecer, su organización, gestión, etc.

Halaber, Berdintasun Departamentuaren 2018ko aurrekontuan, 20.500 €-ko diru-kopurua aurreikusi zen enpresa bat kontratatzeko, proiektu honen inguruan prozesu parte-hartzaile baten bidez hausnarketa bat egiteko herritarrekin, bereziki emakume-taldeekin.

Asimismo, en los presupuestos del 2018, el Departamento de Igualdad cuenta con una cantidad de 20.500 euros para la contratación de una empresa que realice un proyecto en torno a un proceso participativo de reflexión con la ciudadanía, especialmente con los grupos de mujeres, sobre este tema.

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko

En la primavera de 2017, algunas feministas y grupos de mujeres se reunieron para impulsar

Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

y dar forma a la Casa de la Mujer de Tolosaldea.A tal finalidad convocaron una reunión abierta que resultó todo un éxito. En dicha reunión concluyeron la necesidad de la existencia de una casa de la mujer para toda la comarca que estuviera situada en Tolosa así como la necesidad de un proceso participativo para decidir el tipo de casa. Se recogieron más de 300 firmas para dicha solicitud.

Gainera, iazko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eta, horri begira, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea eta errealitate bihurtzeko plangintza edo bide-orria lantzea, eta, azkenik, herriko nahiz eskualdeko eragile eta herritarrak era honetako ekipamenduaren beharraz sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina garatzea.

En el contexto de la huelga feminista del 8 de marzo del año pasado, se ha creado la Asamblea feminista de Tolosaldea, siendo su reto principal la creación de la Casa de la Mujer, construir la red de mujeres y agentes de la comarca, crear las condiciones para actuar conjuntamente , trabajar la hoja de ruta para que se haga realidad y por último, desarrollar una campaña de comunicación a fin de sensibilizar la ciudadanía y agentes tanto municipales como comarcales.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada feministako ordezkariek, emakumeen taldekoek, emakume norbanakoek eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Prozesu parte-hartzailea Elhuyar Aholkularitzako teknikariekin garatu da.

Así pues, en mayo de 2018, se dio inicio al proceso de participación y se crearon dos grupos de trabajo más: El grupo promotor (representantes de la asamblea feminista de Tolosaldea, representantes de los grupos de mujeres, mujeres y técnica de igualdad de Tolosa) y el Foro abierto de mujeres (mujeres interesadas de la comarca). El proceso participativo se ha llevado a cabo con la empresa Elhuyar.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailetik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume inguruk hartu dute parte.

El proceso participativo se desarrolló en dos fases: en la primera fase (mayo-junio) se definieron los principios, finalidad, características, uso y actividades de la casa, y en una segunda fase (septiembre-diciembre) se definieron el modelo de gestión, los recursos de la casa. En todo el proceso participaron alrededor de 104 mujeres de la comarca.

Horiek horrela, Tolosako Udaleko udal taldeek Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo konpromisoak hartzea udal esparruan:

Los grupos municipales del ayuntamiento de Tolosa acuerdan la adopción de los siguientes compromisos:

1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta

1.- Aprobar el documento del proyecto de la

Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.

Casa de la Mujer aprobado en foro abierto y creado por el grupo promotor.

2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.

2.- Apoyar el proyecto de la casa de las mujeres de Tolosaldea más allá de los cambios políticos posibles y mantener tanto su proceso como el resultado fuera de la lógica de intereses políticos.

3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).

3.- Socializar y visibilizar en el municipio tanto el proceso como el resultado de la Casa de la Mujer de Tolosaldea (divulgar en la web municipal, red social y revista municipal).

4.- Baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

4.- Disponer de recursos económicos y humanos para poder desarrollar la actividad de la casa de la mujer de Tolosaldea con la provisión de una partida presupuestaria .

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen
Lan-talde politiko-teknikoa

Grupo de trabajo político-técnico de la
Casa de la Mujer de Tolosaldea.

Tolosan, 2019ko martxoaren 20an

TOLOSAKO UDALA

JOKIN AZKUE ARRASTOA
EAJ-PNV

CRISTIAN FERNANDEZ SUSIN
PSE-EE

KRISTINA PELAEZ ERRAZKIN
EH BILDU